

## PRENTSA-OHARRA

Udalak eta Alde Zaharreko merkatariek fatxada, balkoi eta leihoak apaintzeko I. Dekorazio Lehiaketa antolatu dute, eta apirilean egingo da

Alde Zaharreko biztanleei zabalik da, apirilaren 16a baino lehen eman behar da izena, apirilaren 19tik 29ra egongo dira apaingarriak jarrita, eta 1.000 euro banatuko dira saritan

Iruñeko Udalak eta Alde Zaharra elkarteak auzo horretako fatxada, balkoi eta leihoak apaintzeko I. Dekorazio Lehiaketa deitu dute, eta heldu den apirilean zehar gauzatuko da. Elkarateak eta Udalak elkarlanean bultzatu duten Udaberriko kanpainako jardueren barruan sartzen da ekimena. Lehiaketak 1.000 euro banatuko ditu saritan, eta Alde Zaharreko edozein biztanlek parte hartu dezake. Hala azaldu dute gaur, prentsaurrekoan, Tokiko Ekonomia Jasangarriko zinegotzi ordezkari Patricia Peralesek eta Alde Zaharreko Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuetako elkarteko kudeatzaile Carlos Albillok.

Lehiaketa honen bidez fatxada, balkoi eta leihoak berreskuratu nahi dira Alde Zaharreko elementu bizi gisa, eta horiek berreskuratzearen onura estetikoak eta ingurumenekoak sustatu nahi dira. Apaindutako elementu horietako bakoitzaren atzean herritar baten ekarpena dago: kale bat zein eraikin bat estetikoki hobetzeko, horien ingurumen-kalitatea hobetzeko eta, batez ere, hiri-inguruarekiko harremana hobetzeko, gainontzeko herritarrek gozatu ahalko duten ekarpen pertsonal eta artistiko baten bidez.

**Izena emateko jo [oficina@cascoantiguopamplona.com](mailto:oficina@cascoantiguopamplona.com) helbidera eta 948229088 telefonora.**

Lehiaketan parte hartu ahalko dute Alde Zaharrean fatxada, balkoi eta leihoak dituzten etxebizitzetako bizilagunek orok, baldin eta apaindu badaitezke apaingarriek arriskurik eragin gabe, ez etxebizitzarengan ez oinezkoengan. Horretarako instalazioen segurtasuna bermatzeko behar diren neurriak hartu beharko dituzte, eta hirugarrenen aurrean hori ez betetzearen ondoriozko edozein ardura mota bere gain hartuko dute.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek apirilaren 16ko 00:00ak baino lehen eman beharko dute izena, [oficina@cascoantiguopamplona.com](mailto:oficina@cascoantiguopamplona.com) helbidera mezu bat idatzita edo 948229088





telefonora deituta. Izena emateko honako datu hauek eman behar dira: izen-abizenak, NANA, telefonoa eta helbidea.

Balkoia, leihoa zein fatxada apaintzeko erabiltzen diren materialak, motiboak eta apainketaren gaia libreak izango dira. Lore-apaingarriak izan daitezke, edo beste edozein motatakoak, eta udaberriarekin lotuta egon daiteke edo izaera artistikoko beste edozein gairekin. Apaingarriak kaletik ikusi behar izango dira eta apirilaren 19tik 29ra egon beharko dira jarrita, bi egun horiek barne.

### **Epaimahaiak emandako bi sari, eta herritarren botoekin aukeratutako beste bat**

Epaimahai teknikoak balkoi zein leihorik hoberenei emandako bi sari egongo dira: 500 euro lehenengo sariarendako; eta 300, bigarrenarendako. Herritarrek ere sari bat esleituko dute, 200 eurokoa, eta hori aukeratzeko bozketa egingo da elkarteren webgunearen bidez. Botoa emateko aukera zabalik egongo da apirilaren 27ko gauerdia arte. Bozkatzen dutenen artean 100 euroko sari bat zozketatuko da. Maiatzaren 2an egingo da sari horren zozketa eta jakinaraziko dira lehiaketaren irabazleak.

Hiri Kontserbazioko edota Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorreko teknikariek, Arte Ederren arloko eta Iruñeko Alde Zaharra elkarteko ordezkariak osatuko dute epaimahaia. Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da, eta eman gabe utzi ahal izango da, baldin eta proposamenek ez badute behar adinako kalitaterik. Epaimahaiak apainketak ikusiko ditu apirilaren 20tik 27ra bitarte, eta erabaki bat hartuko du apirilaren 30erako.

Epaimahaiak zein herritarrek honako irizpideak hartuko dituzte kontuan puntuatzeko orduan: konposizioaren originaltasuna eta sormena; apaingarrien kalitatea; diseinua; multzoaren harmonia; lore-apaingarririk erabiltzen ez den kasuetan, berrerabilitako materialak erabili izana; lanaren zailtasuna; eta iraunkortasuna.

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek erabat onartzea. Halaber, antolatzaileei argazkiak egiteko baimena emango zaie, eta horiek erabili ahal izango dituzte edozein euskarritan argitaratzeko, betiere argazkiak toki komun eta publikoetatik eginez gero.

### **Udaberria, bost zentzumenekin kanpaina, sariak eta erakusleihen-lehiaketa**

Alde Zaharreko fatxada, balkoi eta leihoak apaintzeko lehiaketa Alde Zaharra elkarteak udaberriko kanpainaren barruan programatu dituen jardueretako bat da. Aurten elkarteak kanpaina *Udaberria, bost zentzumenekin* lelopean aurkeztuko du. Merkataritza-sustatzeko sariak zerikusia izango dute bost zentzumenekin: ikusmena, entzumena, dastamena, usaimena eta ukimena, eta loreek haien paper nagusia mantenduko dute, aurreko edizioetan bezala, dendetako apaingarri zein opari gisa.

Saltokien apainketaz eta merkataritza sustatzeko kanpainaz gain, elkarteak, Iruñeko Udalarekin elkarlanean baita ere, Udaberriko Erakusleihen Lehiaketaren laugarren edizioa deitu du.



Fatxada, balkoi eta leihoak apaintzeko lehiaketarekiko era paraleloan gauzatuko da, eta hiru sari banatuko dira, 300, 200 eta 100 eurokoak.

Iruñean, 2018ko martxoaren 27an 2018